

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Nekazari gazteen protesta Ubilluts industriagunetik hiribururaino

Lehen sektoreko profesional gazteek protesta-martxa deitu zuten astelehen goizean, lan-baldintza duinen alde / 16

Inauterietako irudi-bilduma

Andoainen eta Urnietan herrikide ugari mozorrotu zen, asteburuan / 2-11

Udaberriko
Jabekuntza Eskola
aurkeztu du
Andoaingo Udalaren
Berdintasun Sailak / 12

Akordio politiko zabala
aurkeztu dute
Andoaingo Udaleko
EH Bildu eta EAJ-PNV
udal taldeek / 13

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

943 903 450 bertako.eus





Txinatar ospakizuna Urnietara iritsi zen Los Vintages taldearen eskutik. AIURRI

Urnietara, munduko ospakizunen pasarela

Urnietako Inauterien epizentroa Idiazabal kalean eta Plazido Muxika plazan aurki zitekeen. Eskerrak euriak ez zuela iragarri bezain besteko agerpena izan. Horri esker, ospakizuna kalera atera zuten dozenaka eta dozenaka festazalek

Erredakzioa URNIETA

Eguraldia aldeko, giro ezin hobea izan zen larunbatean Urnietan: musika lagun eta mozorroak barra-barra. Munduko ospakizunak izan zituzten hizpide, eta, goizean goizetik hasi eta gaueko ordu txikiak arte, jai-giroan murgiltzeko parada ederra izan zuten urnietarrek.

Etxe ondoko festak eduki zituzten gogoan askok, hala nola, Donostiako danborradaz, Lantzeko Inauteriez, Sanferminez edota Bilboko Mari Jaiaz mozorrotuta gozatu zuten asteburuko festa batzuek. Aldiz, urrutiko txokoetara jauzi egiteko aukera baliatu zuten beste hainbatek: Urte Berri txinatarrak, Oktober-

fest alemaniarra, Irlandako San Patrizio eguna, Mexikoko Hildakoen Eguna, Veneziako Inauteriak... Guztiek bat egin zuten, Urnietan, larunbatean.

Idiazabal kalean gora eta behera ibili ziren inauterizaleak, txarangaz lagunduta edo beren koreografiak gainerakoei erakusten.



Mozorrozale amorratuak

Partaidetzak eman ohi dio zentzua ospakizunari. Batzuren lanari esker, ordea, inauteria maila gorenera igo ohi da. Ezin aipatu gabe utzi, beraz, Los Vintages taldea. Zorionak!



Urnietako
udala



Bilboko jaien ikur nagusia da Mari Jaia. Mielaren herrira hurbildu zen pertsonaia ezaguna, aurreko asteburuan. AIURRI



Txinako ospakizunak gogoko dituzte urnietarrek, larunbatean ikusitakoaren arabera.



Uztaileko klasikoak Tourra eta Sanferminak dira. Udan igaro zen Tourra Urnietatik. Larunbatean, berriz, Iruñeko entzierroa. AIURRI



Aiurriren aldeko peregrinazioa, Idiazabal kalean. 2011ko Inauteriak biziberritu zuten bertan ageri zen QR kodean sartu zirenek. Orduan eta egun, Aiurri ezinbestekoa izaten jarraitzen duela adierazi zuten. AIURRI



Bikingoen agerpena nabarmena izan da, aurten, Andoaingo eta Urnietako Inauterietan. AIURRI





Garizuma bitarteko berrogei egun geratzen dira, Inauteriak amaitu berritan. Aste Santura bidaia egitea zen argazkiko kuadrillari begira jartzea. AIURRI



Satira eta kritika behar-beharrezkoak dira Inauterietan. AIURRI



Alemanioko garagardo-azoka ezaguna, Plazido Muxika plazan. AIURRI

Partaidetza handiko bazkaria

Poxta Zahar taldeak Inauteri eguneko bazkaria antolatu zuen Plazido Muxika plazan. Kuadrilla ugari hurbildu zen festara, Jai Batzordeak egindako deialdiari erantzunez: munduko ospakizun ugari irudikatu zituzten herriko gazteek

Erredakzioa URNIETA

Txina, Irlanda, Italia, Mexiko, Sevilla, Eskozia... Askotariko herrialdeetako jaien topaleku izan zen Urnieta, joan den aste-buruan. Ohiturari jarraiki, makina bat gazte hurbildu zen Poxta Zahar elkarteak antolatutako egitarauera. Eguerdiko 12:00etan hasi zuten jaiak, taberna batetik besterako poteoarekin. Ondoren, Plazido Muxikan, bazkari herrikoa egin zuten eta Kitadelpare txarangaren laguntzaz eman zioten jarraipena, arratsaldean, Inauteri festari.



Txinatar ospakizun bat baino gehiago ikus zitekeen Urnietako Inauterietan. AIURRI



Garagardozeleak eta entzierozeleak Urnietan elkartu ziren. AIURRI



Irlandar ospakizuna, Saint Patrick's delakoa, Urnietako kaleetara ekarri zuten. AIURRI





Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian egin zuten Ostegun Gizeneko ospakizun nagusia. AIURRI

Haizeteak baldintzaturiko Ostegun Gizona

Haize ufada bortitzak altxa ziren ostegunean. Zuhaitz adarrak erori ziren elizaren ondoan eta, segurtasuna bermatu ezinik, karpa itxi behar izan zuten. Ospakizun nagusia Ondarreta Herri Eskolan egin zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Goikoplazako hitzorduak hasi aurretik, ikastetxeetako ospakizunetan haizeteak eragin zuzena izan zuen. Aita Larramendi ikastolan, esaterako, jendetza elkartu zen Juanita Alkain eraikinean. Kosta ala kosta egin zen jaialdia, haizeak indar bizia hartu zuelako. Egun handia izan ohi da gaur eta gazteentzat, An-

doingo Inauterien hasiera ospatzen baita ostegunean. Arratsaldeko kalejira, halabeharrez, iraupenean eta ibilbidean mugatu behar izan zuten. Azkeneko hiru ikastetxeetako ospakizun nagusia Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian egin zuten. Goikoplazako karpan DJ saioa iragarrita zegoen, eta bertan behera utzi zuten. Bastero-

ko Udal Musika eskolako ikasleen emanaldia, aldiz, Ondarretara eraman zuten. Bitartean, haizeak arrisku-egoerak sortu zituen herrigunean. Guztien artean nabarmenena Goikoplazakoa aipatu behar. Elizaren ondoko zuhaitz baten adaxkak lurrera erori ziren. Zorionez, ez zuen eraginik izan festazale txikien artean.

Haizetea, jaia hastearekin bat



Goikoplazan, bazkalostean, haizeak zuhaitz adarra bota zuen. AIURRI



Edukiontzia lurrera bota zituen haizearen indarrak. AIURRI



Ondarreta Herri Eskolako ikasleak jolastoki estalian, ostegun arratsaldeko ikuskizunean. AIURRI

Txaranga, perkusioa eta txistua



Gora Kaletxiki txarangak girotu zuen Inauteriaren hasiera. AIURRI



La Salle Berrope ikastetxeko ikasleak, Kale Nagusian behera. AIURRI



Bartzelonatik zuzenean iritsi ziren Brincadeira taldekoak. AIURRI



Andoaingo Olagain Udal Txistulari Elkarte, ostegun iluntzean. AIURRI



Aita Larramendi ikastolako ikasleek herri inauteriak irudikatzen dituzte. Argazkian, Kale Nagusian gora. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Extralurtarrak goizetik nabarmendu ziren. Iluntzean, Kaleberrian gora dizdira egiten zuten euren espaziontziek. AIURRI



Santa Krutz zubiko armiarma-sarea hizpide izan zuten, iaz. Aurten, Donostiako postal parekaezina irudikatu zuten. AIURRI



Zumbalokurak koreografia landua aurkeztu zuen, beste behin ere. AIURRI

Ikusezinaren mozorroa jantzi zuen euriak, desfilean

Larunbat goizean hasi eta eguerdira bitarte, giroa ez zen batere atsegina izan. Euria, haizea eta hotza, hiru elementuren nahasketak etxean geratzeko gogoia piztu zion bati baino gehiagori. Zorionez, ateri zela egin zen arratsaldeko desfile jendetsua

Erredakzioa ANDOAIN

Desfilea bere horretan egin ahal izan zen, eta ez da gutxi! Eguraldiaren aurrikuspenak askoz okerragoak zirelako. Ostegunean, gainera, haizetearen ondorioz arriskua nonahi antzeman zitezkeen. Baina, zorionez, larunbat arratsaldean euriak, ez zuen agerpenik egin. Ikusenizaren mozorroa jantzi zuela esan daiteke.

Ohi bezala jendetza elkartu zen Andoainen. Kalea karrozaz eta konpartesaz bete zen, eta errepide ertzean haiei begira jarritako herrikideak ere ez ziren gutxi izan. Gehien-gehienak mozorrotuta. Bada, gainera, errealitate bikoitza. Alde batetik, ofizialki parte hartzen dutenean. Taldeka, lan handia hartzen duten kuadrillak aurki daitezke. Karroza prestatzea eta koreo-

grafia lantzea meritu handiko lan bikoitza da. Beste aldetik, bere kabuz mozorrotzen diren norbanakoak eta talde txikiak aipagarriak dira. Asko eta asko irudimen handikoak, gainera. Denek ere larunbat iluntzean bat egin zuten, Goikoplaza aldean. Mozorro, kolore eta soinu nahasketak horrek ez du parekorik. Indar handiko ospakizuna da, finean, larunbatekoa.



Irudimena landuz, gauza ederrak egin daitezke. AIURRI

Argazki-lehiaketa

2025. urteko programaren azala ilustratzeko aurtengo argazki bat erabiliko du Udalak. Lehiaketa martxan jarri dute, eta argazkiak martxoaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Basteron edo email bidez: kultura@andoain.eus. Xehetasunak [Andoain.eus](http://andoain.eus) webgunean aurki daitezke.



Euskal Inauteriak plazaratu zituen, hainbatek. AIURRI



Lehen jaunartzea biziberritu zutenak ere baziren. AIURRI

Desfilea, Txitibar plazatik abiatuta



Zorionez, Inauterietako desfilea bere horretan egin zen. AIURRI



Mimoa, magia... Zirkoaren hainbat mozerro agertu ziren. AIURRI



Erlijoari lotutako mozerrok ez ziren gutxi izan. AIURRI



Etxeberrietako auzotarrak mozerro-desfilearen hasieran. AIURRI



Inauterizale amorratu ugari bizi da Andoainen. AIURRI



Familia giroan kuadrilla asko irten zen, aurreko larunbatean. AIURRI



Larunbat goizean ekitaldia antolatu zuen Izartxo Aisialdi Taldeak. AIURRI



Radiokaseta eta bic boligrafoa XX. mendeko ikonoak, gaurko gazte askori ezezaguna zaiena. AIURRI



Veneziako gondola eta gondolariak, larunbat arratsaldeko kalejiran. AIURRI



Larunbata, mesanotxeak kalera irten zirenekoa. AIURRI

Balorazioa egiteko bilera

Txaranga hotsak erabat urrundu aurretik, egindakoaz hausnartzeko garaia da. Datorren astelehenean, otsailak 19, Inauterien osteko balorazio-bilerara deitu du Andoaingo Udalak. 19:00tan hasiko da Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan.



Gabonetako Loteria irudikatu zuen Andoaingo kuadrilla batek. AIURRI



Garai bateko hezkuntza eredu bertikala eta euskararen aurkakoa irudikatu zuten.



Hellboy heroia ilunabarrean. AIURRI



Kaleberria, olatuak hartzeko surf eremu bilakatu zuten Kolokaitos-ekoek. AIURRI



Pilotari profesionalen pare agertu zen gazte kuadrilla. AIURRI



Magia saioa bikain irudikatu zuten. AIURRI



NBA liga ezaguneko kirolariek hainbat partida jokatu zituzten, Andoaainen. AIURRI



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Igande eguerdian, Inauteriak jarraipena izan zuen Andoainen. Argazkian, Goikoplazako karpan antolatutako herri-bazkaria. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Merkatarien umore ona

Inauteri festa ez da soilik herritarrena. Jaia osatzeko balio handiko keinua da herriko dendari eta merkatarri askoren joera. Erakuslehoak apainduz eta mozarrotuz, .nauteri betean murgiltzen baita herria. Mojak eta San Pedro "lanean" aritu ziren Arruti gozotegian, larunbatean zein igandean. Argazkian, mojak lanean eta Jainkoari begira. San Pedro inguruan zebilen, giltza guztiak gobernatzen nahikoa lanpetuta.



AIURRI

Sardinaren ehorzketa, igandean



Lagun ugari elkartu zen mozarrotuta, igande iluntzean. AIURRI



Azken bi urteetan Sardinaren ehorzketa biziberritu dute, Andoainen. AIURRI

Lutoz jantzita eta kandelak eskuan, hamaika herrikidek parte hartu zuen, igande iluntzean, Lupercales taldeak antolatuta. Sardinaren atzetik, eta Joselontxos txarangak alaituta, segizioa Zumea plazatik igaro ostean, Goikoplazaraino heldu zen. Ehorzketako kide batzuek udaletxeko balkoitik mintzaldia eskaini zieten bertaratutakoei, euskaraz eta gaztelaniaz. Gai ugari jorratu zituzten, hitzartzean: hala nola, Andoaingo Udala, alkatea, zinegotziak eta klase politikoa, Basteroko eserleku deserosoak, astelehen goizean goiz jaiki eta lanera joan beharra, bizitzaren garestitzea... Garai batean Madrilgo komunitateko presidente izandakoari keinu eginez, "Cifuentes esku zuriko sardin lapurra" erre eta ehortzi zuten. 2023an berreskuratu zuten, Andoainen Sardinaren ehorzketa. Indartsu biziberritu da. Argazki-bilduma eta bideoa, ikusgai aiurri.eus webgunean.



Udaberriko Jabekuntza Eskola aurkeztu zuten aste hasieran, Andoaingo Udaletxean. AIURRI

Udaberriko Jabekuntza Eskola, ate joka

Martxotik ekainera, hamaika tailer izango dira Andoaingo udaberriko Jabekuntza Eskolan. Interesa dutenek martxoaren 4tik aurrera egin beharko dute izen-ematea, Andoaingo Berdintasun sailean

Erredakzioa ANDOAIN

Jabekuntza Eskola martxan jarriko du Andoaingo Udalak, udaberriaren etorreraren bezperan. Hala, martxoan hasita, ekainera bitarte, orotara, hamaika tailer eta lantegi izango dira herrian, ahalduz ardatz. Hori aurkezteko, prentsaurrekoa deitu zuen Andoaingo Udalak, joan den astelehenean. Bertan, Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak zein Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikariak hartu zuten hitza.

Egungo jendartean, oraindik ere horrelako espazioak premiazkoak direla uste du Barandiaranek, "gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak". Eraldatze aldera: "Garrantzitsua da emakumeen parte-hartze politikoa eta soziala sustatzea, ahalduz-prozesuen bidez". Ildo beretik, eskaintzaren xehetasunak azaldu zituen, jarraian, Barrenetxeak. Martxoaren 4an irekiko da izen-ematea.

Hausnarketarako espazioa

- "Filosofia eta feminismoa: emakume filosofoak arrazoi patriarkalaren aurka". Marisa Hurtadoren eskutik, gaztelaniaz.
- "Arte garaikidea eta feminismoa", Ainara Martinen eskutik. Hizkuntza parte-hartzaileen araberako izango da.

Sormenerako aukera

- "Batukada feminista", Botapa batukada taldearen eskutik. Hizkuntza parte-hartzaileen araberako izango da.

Zaintzarako tartea

- "Sexualitate kontzientea: beste emakume batzuk maite dituzten emakumeentzat", Bea Zalakainen eskutik, gaztelaniaz.

IKASTARO BAKOITZA HASI BAINO ZAZPI EGUN LEHENAGO ITXIKO DA IZENA EMATEKO AUKERA

ten emakumeentzat", Bea Zalakainen eskutik, gaztelaniaz.

- Autodefensa feminista, Emaginaren eskutik, euskaraz.
- "Ginekologia naturala eta maitasunezkoa", Clara Gutierrez, gaztelaniaz.
- "Zaintzailentzako ongizate emozional eta autozainketa lantegiak", Saioa Garmendiaren eskutik. Hizkuntza parte-hartzaileen araberako izango da.
- "Jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala", Sorbururen eskutik, gaztelaniaz.

Oinarrizko formakuntza

- "Oinarrizko brikolajea", Carmen Melchorren eskutik, gaztelaniaz.
- "Sendabelarrak", Kris Lizarragaren eskutik. Hizkuntza parte-hartzaileen araberako. Hainbat bide daude izena emateko: Andoain.eus, Berdintasun Saila (943 30 08 30, berdintasuna@andoain.eus) edo Ataria.



AIURRI

Hirugarren asteko sariduna

"Izaskun Eizagirre" erabiltzailea izan da hirugarren asteko sariduna, Egunean behin lehiaketan. 20. postuan gelditu zen urtarrilaren 29ko astean, egunero-egunero, galdera guztiak erantzunda. Hala, Arruti gozotegiaren eskutik osatutako sari ederraz gozatzeko aukera izan zuen. Datozen asteetan, opari gehiago!

POSTONTZIA

EGUZKI ANDOAIN

"Baso biziak eta monolaborantza" hitzaldia Andoainen

Eguzki Talde Ekologistak hitzaldi bat antolatu du otsailaren 21ean, asteazkena, 19:30ean Basteron. Hitzaldia Baso Biziak plataformako kide den Edu Zabalak emango du. Aspaldian kezka genuen gure inguruan ikusten dugun mendien egoeraz. Landaketak dira nagusia eta ia denak ustiaketara bideratuak. Ondorioa da aukera gutxi ematen diogula naturari garatzeko, bioaniztasunak bere adierazpenik zabalenean (habitata ezberdinen mantentzea, espezie babestua eta ez direnen bizilekuak...) aurrera egin dezan. Naturak eta honen parte den basoak, funtzio asko betetzen ditu, funtzio ekosistemikoak esaten zaie eta nagusienak: CO2 oxigeno eta biomasa bilakatzea, klimaren gorabeheren ondorioak apaltzen laguntzen du, ura araztu eta erregulatzen laguntzen du, uholde naiz luizi arriskuak arindu, gordailu genetikoa da, egurra ekoizten du, aisigune bihurtzen da...

Baina zuhaitz masa bati begiratzen diogunean ez gara gauza horien gehien jabe. Horregatik, hitzaldia antolatu dugu:

- Basoak betetzen dituen funtzio horiek azaltzeko.
- Basoaren eta landaketen arteko aldea ezagutzeko.
- Basoa kudeatzeko era ezberdinek dituzten ondorioak.
- Jabetza mota ezberdinak eta horien aukeraz aritzeko: Tantai baso jabeen kooperatiba, Lurguia fundazioa...

Hitzaldia lotuta dago martxoaren 2an egin behar dugun zuhaitz landaketarekin. Ekitaldi herrikoia izango da eta irteera puntua Otietako aparkalekuan izango delarik. Honi buruz ere azalpenak emango ditugu hitzaldian.

www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia



Mikelez eta Goenaga jeltzaleak, Alvarez eta Lasa EH Bilduko ordezkariekin batera. AIURRI

Aurrekontuak, inbertsioak eta jardunbide politikoa

Zazpi orrialdeko hitzarmena helarazi diete hedabideei, zeinean akordio hirukoitzaren edukia xehetasun handiz jasotzen diren. "Lehenengo atalean, 2024 urterako aurrekontu-proiektuari hobekuntza proposamenak adostu dira, eta horiek otsailaren 15ean bozketara jarriko dira. Bestalde, Andoaingo udalerriko inbertsiorako erronkak adostu dira, jarduteko lan egutegi bat ezarriz, horiek guztiak Andoaingo Udalaren diruzaintzako gerakinetik finantzatu ahal izateko. Azkenik, akordio politiko bat itxi da hainbat gai desblokeatzeko eta bi alderdien arteko ekintza koordinatua sustatzeko, tokiko erronka nagusietako batzuk garatzeko".

Muinean, herriko erakunde nagusia XXI. mendera ekartzeko saiakera da EH Bildu eta EAJ-PNV alderdiek adostu dutena. Prentsaurrekoan, eta agirian, ildo horri indar berezia eman nahi izan zioten. Honako hauxe, agirian adierazitakoa: "Gizartea gero eta azkarrago ari da aldatzen, eta Andoaingo Udalak modernizatu egin behar du bere egungo konfigurazioa, ahalik eta zerbitzu hurbilena eta eraginkorra eskaini ahal izateko. Uste dugu prozesua aldebakartasunetik ez dela egin behar, adostasunetik eta kontsentsu zabaletik baizik".

Udaletxearen berrantolaketa, Haurreskolaren doakotasuna, Liburutegi berria martxan jartzea eta hondakinen kudeaketari bultzada ematea ageri dira, zehatz-mehatz, "Ekintza politiko koordinaturako akordioa" atalean.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2023ko ekainean abiatu zen agintaldi berriak urrats sendoa eman duela esan daiteke, ezker abertzalearen eta jeltzaleen arteko akordioaren edukia ezagutu eta gero. Udal aurrekontuaren onarpena mugarriz izaten da udalgintzan, baina, aste honetan, bi alderdiek elkarrekin deitu zuten agerraldian aurkeztutakoa harago doa. Ez da 2024ra mugatzen, eta jopuntua agintaldi osora jarrita dago. Inbertsio-zerrenda adostu baitute, baita elkarrekin aurrera egiteko jardunbide politikoa ere. Akordio horren barnean, bi alderdi abertzaleak elkar hartuta ariko baitira, besteak beste, Udal Liburutegi berria eraikitzeko, Udala berrantolatzeko eta Galardi Haurreskola publikatzeko. Anbizio handiko akordioa da, hobekuntza ugari egitea adostu baitute. Akordiora iritsita, hori garatzea izango da erronka nagusia. Ez dira gutxi aipagai dituzten inbertsioak.

Lehentasunak

Lehentasuneko inbertsio-plana aurkeztu dute, datozen urteetan gauzatzeko asmoz. Askoren artean, honako hauek dira:

- **Herri baratzeak.** Lurak egokitu eta zozketa egiterainoko egutegia adostu dute.
- **Kiroledegi berria.** Egitasmoa idatzi eta 2027rako lanak amaituta egotea hitzartu dute.
- **Basteroko eserlekuak eta Bekopla-zaren eraberritzea.** Biak ala biak

Andoainerako akordioa

2024ko Udal aurrekontua onartzeko ez ohiko batzarraldia egingo dute, ostegun honetan. Babes zabala jasoko du gobernu taldeak, ordezkariak duten lau alderdietatik hiruk baiezkoa emango dutelako. EH Bilduk eta EAJ-PNVk akordio zabalagoa lortu dute

Partaidetzako Aurrekontuetan aukeratutako egitasmoak izan ziren. Udaberriean azterlanari ekingo diote, luze gabe errealitate bilakatzeko.

- **Goiburuko plaza.** Frontoiaren ondoko gunea eraberritu aurretik parte-hartze prozesua martxan jarriko dute.
- **Zaintza, Emakumeen Etxea.** Zaintzaren azterlana eta Emakumeen Etxea eraiki aurreko aholkularitza kontratatuko dira.
- **Zerbitzuetako pabilioia.** 2025erako martxan egoteko konpromisoa hartu dute.

AURKEZTUTAKO AKORDIOAREN BARNEAN, BI ALDERDI ABERTZALEAK ELKAR HARTUTA ARIKO DIRA

Imanol Goenaga, EAJ-PNV

"Xehetasun maila handiko akordioa da, egutegia eta diru-partidak ageri baitira. Aurrez gobernatu izanak eta proiektuen ezagutzak zerikusia du gaurko ekitaldian. Bestalde, uste dut bi alderdiok ariketa zintzoa egin dugula. Guk gure aldetik ekarpenak egin ditugu, positiboan, eta bidelagun gara. Ulertuta bakoitzaren rola. Eurak gobernuan daude, eta gu oposizioan. Lankidetzara, hori da gure ekarpenak egiteko modua. Jarraipen zehatza emango diogu akordioari, eta akordioak garatzen doazen heinean ez da EH Bilduren edo EAJ-PNVren garaipena izango, Andoaingo herriarena baizik. Hartutako konpromisoekin aurrera joanez gero, EAJk modu baikorrean erantzungo du. Hasiera bat da gaurkoa, positiboa".

Andoni Alvarez, EH Bildu

"Gizartea oso azkar aldatzen ari da eta, gure ustean, aurrean ditugun erronkei aurre egiteko adostasun zabalak behar ditugu. Analisi hori partekatu dugu Andoaingen ordezkariak duten gainerako alderdi politikoekin. Gaur gaurkoz, hamazazpi zinegotzietatik hamabi zinegotziren babesa dugu. Gure nahia da babes horri eustea da, hori baino babes zabalagoa lortuko bagenu, askoz hobea. Ditugun erronka guztiei aurre egiteko adostasun zabalak lortu behar ditugula argi baitugu".

ZAZPI ORRIALDEKO AKORDIOA ETA AKORDIOAREN BIDEOA AIURRI.EUS GUNEAN KONTSULTA DAITEZKE

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 15

ANDOAIN Hitzaldia

"Triba gurasoak" ekimen pedagogikoa Andoainera iritsi da, Aldundiaren eta Udalaren eskutik. Hitzaldian nerabeen errealitate digitala azalduko da, segurtasun digitalean familiak zer egin dezakeen azpimarratzeko. 17:30, *Gazte Lokala*.

ANDOAIN Plenoa

Ez ohiko plenoan, 2024ko Udal aurrekontuak hizpide izango dituzte. 19:00, *Udaletxea*.

URNIETA Jabekuntza Eskola

Izen-ematea zabalik dago, otsailaren 20ra arte: Bertan, Gaztelno eta urnieta.eus. *Azken eguna: Otsailak 20*.

IGANDEA 18

ANDOAIN Haur antzerkia

"Harri salda". Bere herrialdetik ihes egitera behartuta dagoen neskatoa da Alma. Bidaia luzearen ondoren, leku ezezagunera iristen da. Itxuraz, hango jendeak denetarik dauka, baina inork ez dio ezer utzi nahi. 12:00, *Bastero*.



Xabin Fernandez eta Intza Alkain. ISAAC FARRE

URNIETA "Kanpora sartzen" antzezlan

2013ko martxoaren 11n, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabin eta birusaren arteko harremanaz hitz egiteko garaia iritsi da. Aitziber Garmendiak zuzenduta, bi aktore ageri dira taula-gainean: Xabin Fernandez eta Intza Alkain. Txalo Produzioak ekoiztutako antzezlan da. *Otsailak 18, igandea. 19:00, Sarobe*.

ASTELEHENA 19

ANDOAIN Bilera

Inauterietako balorazio-bilera deitu du Andoaingo Udalak. 19:00, *Bastero*.

ASTEAZKENA 21

ANDOAIN Hitzaldia

"Baso biziak eta monolaborantza. Informazio gehiago, 12. orrialdean. 19:30, *Bastero*.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Bizkarsoro
Lar, 17. 19:30, 22:00.
Ig, 18. 19:30.
Astl, 19. 19:30, 22:00.

El fantasma de


Canterville

Lar, 17. 17:00.
Ig, 18. 17:00.

El color púrpura

Lar, 24. 19:30, 22:00.
Ig, 25. 19:30.

Astl, 26. 19:30.



SINOPSIS



Bizkarsoro

Zuzendaria: Josu Martinez. **Aktoreak:** Bea Kurutxarri, Martxela Aneva-Fuchs, Bixente Indart, Lea Campistron, Eneida Alfaro-Camus. **Herrialdea:** Euskal Herria (2023). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Drama. **Soinu banda:** Joserra Senperena. **Iraupena:** 82 min.

Euskal Herriko ekoizpena

Iparraldeko fikziozko herri batean kokatuta dago filma, XX. mendean, eta euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa du hizpide. Filma fikziozkoa izanik ere,

benetako istorioak ekarri ditu Martinezek pantaila aurrera, kontaktzen baitu nola zigortzen zituzten herritarrak, euskaraz hitz egite hutsagatik.



Kantu afaria

MARTXOAK 1, OSTIRALA

20:00 Altuna sagardotegia

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko

Izena emateko hiru aukera:

- Mezua idatzi Aiurrira: 📞 619 163 537
- Mezua idatzi AEKra: 📞 662 338 747
- Kantazaun taldekoekin harremanetan jarri



INISTORRI
Urnietako Euskaltzaleen
Biltzarra

KANTAZAUN



Finaleko aurkariaren zain da Ansa urnietarra

Larunbatean, Juanenea eta Azpirozen arteko partidatik aterako da Ansaren aurkaria

Komunitatea Oriamendi

Imanol Ansa urnietarra da Kutxabank Masterseko lehen finalista, Azpirozi 30-23 irabazi ondoren, ligaxkako bigarren partidan. Ansak zortzi puntu ditu eta ligaxka lehen postuan bukatu duenez, 2023ko titulua defendatuko du finalean. Bestalde, Azpirozek eta Juaneneak datozen larunbatean jokatu dute finalerako txartela, ligaxkako hirugarren partidan. Biek ez dute punturik eta irabazlea finalista izango da eta galtzailea kanporatua izango da. Partida 17:30ean hasiko da, Galarretan.



Leizaran Lanbroa taldeko jokalaria, aurreko larunbatean. AIURRI

Leizaran Lanbroaren partida, Inauterietako bakarrenetakoa

Euskal Ligako jardunaldiari eutsi zioten aurreko asteburuan. Gipuzkoa mailan etenaldia egin zen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoain Inauteri festa betean zela, senior mailako neskak Allurralden ligako partida jokatzen ari ziren. Kukullaga aurkariaren aurka ezin izan zuten partida irabazi (25-34). Asteburuan atsedena dute.

Kadete mailako Leizaran ere Euskadiko Ligan ari dira. Asteburuan Barakaldon partida galdu zuten (35-32), eta asteburuan Ereintzaren kantxan ariko dira.

Senior mailako mutilen Urnieta eta Leizaran taldeak, bestalde, etxetik kanpo ariko dira.

"Andoain Laburrean" sari-banaketa ekitaldia, ostiralean

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak eta ESCIVI Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak elkarlanean antolatzen duten Andoain Laburrean lehiaketaren sari banaketa ekitaldia ostiral honetan izango da, Basteron, arratsaldeko 19:00tan hasita. Bi sari nagusi banatuko dira, eta hirugarren bat ere izango da: Ikuslearen Saria. Lehiaketan parte hartzeko lana euskaraz egin behar da eta, aurten, bereziki, zubi bat agertu behar da. Hautagaien lanak ikusgai daude Udalaren Youtube kanalean.

Bederatzi izan dira lehiaketara aurkeztu diren lanak. Egileek 16 urtetik 29 bitarteko gazteek egindakoak dira, eskualdean bizi edo ikasten ari direnak.

Saritutako hiru lanez gain, Ane Rotaetxeren "Kosmikoa" lana ikusteko aukera izango dute ikusleek. Egilea bera Basteron izango da, eta berarekin solasteko aukera izango da. Film labur honetan kokiltzen ez den ama baten istorioa kontatzen da.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN Zorionak bikote
Gorka eta Anne lehengusuek 3 urte beteko dituzte otsailan. Bizkor eta bihurri ari zarete hazten! Muxuak Nere, Anje eta etxekoan partetik.

URNIETA Zorionak Peio
20an, 14 urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN Zorionak Aitor!
Otsailaren 18an 4 urte. Jarraitu orain bezain alai eta jator. Amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.

ANDOAIN Haizea Rojo Arregi
Otsailaren 17an 7 urte beteko ditu Haizeak. Segi orain arte bezain zoriontsu. Muxu haundi bat. Etxekoak.

ANDOAIN Ane Etxezarreta Jauregi
Anek 9 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.

Teknifikazio Saria

Bi aste atzera, Buruntzaldea IKT-koak Azpeitian izan ziren, alebin mailako Teknifikazio Sarian. Itxaso Iparragirre, Oier Jauregi, Ander Martínez, Liher Albizu eta Aitor Ormazabal gazteek ordezkatu zuten kluba. Igerilariak beren markak guztiak ontzea lortu zuten orokorrean: "Egun bikaina pasa zuten elkarrekin, igerilekuan nahiz kanpoan bazkaltzen".



BURUNTZALDEA IKR

ESKELA

Txomin IRAZU LOYARTE

Otsailaren 12an hil zen, Andoainean, 76 urte zituela.



Bere anai-arrebak: Antonino eta M^a Jesus (†), Joakin eta Mari Fe, Jose Luis; ilobak: Fernanda, Jokin eta Angela, Edorta eta Izaskun, Libe, Aitor, Gaizka eta Naiara, Maialen eta Antonio; iloba-txikiak eta gainerako ahaideak.



Andoainean, 2024ko otsailaren 12an

kutxabank MASTERS
TXAPELNETA 2024

OTSAILAK 17 LARUNBATA 16:30EAN
GAIARBETA JAI ALAI BERNANI

Jemaita jarraitu hau

• ZUZARRAZI: YouTube bidez: @joriamandiantemontaa

1. PARTIDAKO ED BETERAKI

LOITEGI · ZUBIRI vs JABALERA · APEZETXEA

MASTERS TXAPELNETA (20 TANTU)

JUANENEA vs AZPIROZ

2. PARTIDAKO ED BETERAKI

URRIZA · MARTIRENA vs SEGUROLA · BARRENETXEA IV



Andoaingo, Urrietako eta Aiztondo bailarako gazte ugari ageri da argazkian, Gipuzkoa plazan. AIURRI

Andoaindik abiatutako martxa, Donostiaraino

Nekazariak haserre bizian daude, gainezka egin dute, eta beste hainbat lurraldetan bezalatsu, Gipuzkoan ere astelehenean atera zituzten traktoreak kalera, lan-baldintza duinak eskatzeko

Xabier Lasa ANDOAIN

Ehun traktoretik gora gidatuz, Gipuzkoako makina bat baserritar, gazteak gehien-gehienak, astelehen goizean bildu ziren Andoaingo Ubilluts industriagunean. Urbilen egonaldia egin ostean, eguerdian iritsi ziren Gipuzkoa plazara klaxonen, motorren eta zintzarrien hotsak lagun zituztela.

Whatsapp bidezko deialdia izan zen, ikusita ENBA eta EHNE sindikatuek Gipuzkoan azken egunetan ez dutela mobilizazio-

rik deitu. Hain zuzen sindikatuek adierazi zuten protesta errespetatzen dutela, eta martxoaren letik aurrera ekingo diotela mobilizazioen egutegi propioari.

Hainbat lelo zabaldu zituzten nekazariak Gipuzkoako errepedietan, beren haserre agerian uzteko; hala nola, "SOS gazte baserritarrak!", "Baserria elikagai jatorria", "Gazteok ere baserritik bizi nahi dugu!", "Purinareneko planta Gipuzkoan bai edo bai!", "Agro-ekologia da bide bakarra!", "Ikuskapenak Aldun-

dian, azokatan ez", "Esne eta haragi sintetikorik ez"... Donostian irakurri zuten agirian, "gizartea osatzen duten" hainbat eragile hartu zituzten jomugan: kontsumitzaileak, supermerkatuak, udalak, nekazarien sindikatuek, Gipuzkoako Aldundia, Espainiako Gobernu eta Europar Batasuna. Guztiei oso eskakizun zehatzak zuzendu zizkieten. Kontsumitzaileei saltoki handietan erosten dituzten jakiak nondik datozen begira dezatela. Saltoki handiei bertako produk-



Donostian nekazariak kalekoen babes zabala jaso zuten. AIURRI



Ubilluts industriagunetik N1 errepidean murgildu ziren, Sorabilla auzoan. AIURRI

tuen salmenta susta dezatela eta ekoizpen kostuen gainetik ordain dezatela. Udalei turismoa lehen sektorearen gainetik ez jartzeaz gain, arindu dezatela burokrazia. Gipuzkoako Foru Aldundiari, berriz, baserritarren eskaerak "goiko karguen aurrean defendatzen" jarrai dezaten, batetik, eta bestetik, administrazioko tramiteetan lagun diezaieten.

Espainiako Gobernuari ekoizpen-kostuen legea betearazi dezala eta aldaketa klimatikoaren zama guztia lehen sektorearen gain ez uzteko eskatu zioten.

Eskakizunen atal luze bezain zehatz horrekin amaitzeko, Europako Batasunari, 2030 Agenda berraztertze eskatu zioten. "Urrats bakoitzean gero eta gehiago itotzen gaituzte", salatu zuten.